

# ESKOPETEROAK SANTA BARBARAN, 1964

Eulali Aramburu Urkizu

Hernaniarrok ongi dakigu Santa Bar-  
barako ermitan uztailaren 31n San  
Inazio egunez festa ospatzen dela.

1964ko uztailaren 31n Txantxangorri  
Ehiza, Arrantza eta Tiro Elkarteak  
ekintza berexi bat egokitu zuen, San-  
dalio Landaribar eta José Sagarna baz-  
kideen ardurapean.

Festa ekintzen barne Meza Nagusia  
izaten zen (izaten da) "eskopeteroak"  
apain-apain jantzita, eskopetak es-  
kuetan zituztela, ermitaren ezker-  
eskuinean jartzen ziren. Meza erdian,  
Kontsagrazioaren momentua iristen  
zenean, denak batera, bi tiro airean  
boteaz agurtzen zuten Jauna.

Ensaio handirik behar ez duen ekin-  
tza zenez gutxitan bildu omen ziren.  
Gertakizun hau urte batean edo... bi  
urtez bakarrik... izan ote zen... diote.

Argazki honek agertzen digun  
ekintza, asko izango dira jakingo  
ez dutenak ere holakorik izan  
zenik.



Hara hemen argazkian daudenak. Zutik: Nemesio Esnal Ceberio, José Gabriel Elizondo Camio, José Ramón Huici Almandoz, Juan Luis Zabaleta Elozegi, Andres Erice Agirresarobe, Jesús M<sup>a</sup> Casado Laburu, Miguel Angel Larretxea Goñi, Jesús M<sup>a</sup> Martínez Polo eta Julen Eguren Goia. Eserita: José Javier Zabaleta Elozegi, José Ignacio Zabala Luloaga, Enrike Lizasoain Lete, Luis M<sup>a</sup> Gorrotxategi Cigaran, Juan Antonio Azpiazu Goñi eta José M<sup>a</sup> Soto Tolosa.